– Zenbatekoa pezetatan.

– Interkonexioko makina saritua.

– Une horretan, sarrera guztizkoen kontagailuaren egoera.

– Sistemaren pultsuak, Jackpot batetik beste jackpot baterakoak.

– Erreserba:

– Une horretan, erreserbaren diruzko eta guztizko balioa.

– Sistema berriro abiarazteko diruzko balioa, erreserbako gainontzeko balioa.

– Programatutako portzentajea.

– Guztizko atxikipenaren balio programatua, Jackpot-erako eta, halakorik bada, erreserbarako balioa pezetatan eta %etan zehaztua.

## Zk-5856

AGINDUA, 2000ko abenduaren 21ekoa, Herrizaingo sailburuarena, urriaren 4ko 380/1994 Dekretua garatzen duena. Dekretu horren bitartez, Joko Aretoen eta Jolas Aretoen Araudia onartu zen.

Urriaren 4ko 380/1994 Dekretuaren bitartez, Joko Aretoen eta Jolas Aretoen Araudia onartu zen, eta dekretu horren azken xedapenetarik lehenengoan ezartzen denez, Herrizaingo sailburuari dagozkio: dekretua betearazteko eta garatzeko beharrezko diren xedapenak ematea; eta, batez ere, makinei eta joko aretoetako sistema interkonektatuei dagokienez, instalatzeko baldintzak eta ezaugarriak aldatzearen gainekoak ematea.

Aipatu araudia, 1994an onartu zenetik aurrera aplikatzearen ondorioz lortutako esperientzia dela-eta, beharrezkotzat jotzen da garapen-arauak ezartzea, hain zuzen ere agindu honen bitartez, eta beti ere aretoak funtzionatzeko eta baimentzeko baldintzak argi eta garbi zehaztearren.

Hortaz, indarreango ordenamendu juridikoak ematen dizkidan ahalmenez baliatuaz, honako hau,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Baimenen nahikotasuna.

Joko aretoak instalatzeko eta funtzionatzeko baimenak lortzeko, ustiatzeko baimen aski izatea egiaztatu

– Cuantía en PTA,

– Máquina de la interconexión premiada,

– Estado del contador de entradas totales en ese momento,

– Pulsos del sistema entre cada jackpot

– Reserva:

– Valor monetario total de la reserva en ese momento,

– Valor monetario de reinicio del sistema, valor restante en la reserva.

– Porcentaje Programado:

– Valor programado de la retención total, con desglose, indicado en % y en PTA, del valor dirigido al Jackpot y a la Reserva, cuando ésta exista.

## N°-5856

ORDEN de 21 de diciembre de 2000, del Consejero de Interior, por la que se desarrolla el Decreto 380/1994, de 4 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos.

La Disposición Final Primera del Decreto 380/1994, de 4 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos faculta al Consejero de Interior para establecer las disposiciones necesarias en desarrollo y ejecución del presente Decreto, y en particular las relativas a la modificación de las características y condiciones de instalación de las máquinas y de los sistemas interconectados en los salones de juego.

La experiencia de la aplicación del citado Reglamento, desde su aprobación, en 1994, aconseja el establecimiento de normas de desarrollo, mediante la publicación de la presente Orden, al objeto de determinar mas claramente las condiciones de autorización y funcionamiento de los salones.

Por lo tanto, y en virtud de las facultades que me confiere el ordenamiento jurídico vigente,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Suficiencia de permisos.

Para la obtención de la autorización de instalación y funcionamiento de salón de juego será preciso acredi-

beharko da, beti ere Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudian xedatutakoarekin bat etorriaz.

*2. artikulu.–* Ostalaritza-zerbitzu osagarria.

1.– Aretoa erabiliko dutenentzako ostalaritza-zerbitzu osagarria —Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiko 15. artikuluan aipatutakoa— ustiatzeko ondorengo baldintza hauek bete beharko dira:

a) Ostalaritza-zerbitzurako eta makinentzako leku bereiztuak ez izatea, ez eta gauza fisikoen bitartez egindako euren arteko separaziorik ere.

b) Mostradore edo barra bat izatea.

c) Udal ziurtagiri egokiaren bitartez, delako jarduera burutzeko aukera izatea egiaztatzea.

*3. artikulua.–* Kartelak eta idazkunak.

Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiko 15. artikuluan zehaztutakoa garatzearren, honako irizpideak errespetatu beharko dira:

a) Ostalaritza-zerbitzu osagarriari dagozkion kartel edo idazkunak aretoaren alboan ezarri beharko dira.

b) Adin txikikoei aretoan sartzeko debekua, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan adierazi beharko da, idazki hauetariko bat erabiliaz hain zuzen ere: «galarazita adin txikikoak sartzea» edo «galarazita hamazortzi urtetik beherakoak sartzea».

c) Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako baimenari buruzko dokumentuan erakutsi beharko dira joko aretoan, derrigorrez.

*4. artikulua.–* Distantziak egiaztatzeko irizpideak.

1.– Joko aretoa baimentzeko eskabidea izapidetzen den bitartean, interesatuak, distantziak neurtzeko egindako aukeraren berri eman beharko dio Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari. Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiko 8.5 artikuluan zehazturiko bat izan beharko du egindako aukerak.

2.– Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiko 8.2.c) artikuluan aipatutako distantzien gaineko dokumentazioa aurkezten duenean interesatuak, dokumentazio horrek ondorio juridiko osoak izango ditu, eta ez da izango beharrezko Administrazioak geroztik egiaztatzea (Interesatuak aurkeztu behar duen dokumentazio hori: Eusko Jaurlaritzak homologatutako entitate batek egiaztatukoa).

3.– Aretoren baten «B» motako 25 makina baino gehiago instalatu nahi bada, interesatuak, entitate homologatu batek emandako eta ondoko hau egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du: joko aretoa ez dagoela dentsitate handiko alde baten. Ziurtagiri horrek goragoko idatz-zatian aurreikusitako ondorioak izango ditu.

tar la disponibilidad de permisos de explotación en número suficiente, de acuerdo con lo dispuesto en el Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos.

*Artículo 2.–* Servicio complementario de hostelería.

1.– La explotación del servicio complementario de hostelería para los usuarios del salón a que se refiere el artículo 15 del Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos, precisará del cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) No tener dependencias diferenciadas para las máquinas y para el servicio de hostelería, ni separación mediante elementos físicos entre ambos.

b) Disponer de barra o mostrador al efecto.

c) Acreditar la posibilidad de ejercer dicha actividad, mediante la certificación municipal correspondiente.

*Artículo 3.–* Letreros o rótulos.

En desarrollo de lo expuesto en el artículo 15 del Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos, se observarán los siguientes criterios:

a) Los letreros o rótulos del servicio complementario de hostelería del salón deberán instalarse junto al propio del salón.

b) La prohibición de acceso a los menores de edad en las entradas del salón deberá constar en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con cualquiera de las siguientes leyendas: «prohibido el acceso a menores de edad» o «prohibido el acceso a menores de dieciocho años».

c) En el recinto del salón de juego será obligatoria la exhibición de los documentos relativos a la autorización, que se faciliten por la Dirección de Juego y Espectáculos.

*Artículo 4.–* Criterios para acreditar distancias.

1.– En el curso de la tramitación del expediente de solicitud para la autorización de un salón de juego, el interesado, especificará a la Dirección de Juego y Espectáculos la opción elegida para la medición de las distancias, de entre las previstas en el artículo 8.5 del Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos.

2.– Cuando el interesado presente la documentación relativa a distancias a que se refiere el artículo 8.2.c) del Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos, certificada por entidad homologada por el Gobierno Vasco, la misma tendrá plenos efectos jurídicos sin necesidad de comprobación ulterior por la Administración.

3.– Cuando en un salón en funcionamiento se pretenda la instalación de más de 25 máquinas de tipo «B», el titular del salón deberá aportar certificación expedida por entidad homologada de que el salón de juego no se halla en zona de alta densidad, con los efectos previstos en el apartado anterior.

*5. artikulua.–* Sariak argitaratzea eta merkataritza marka.

1.– Interkonektaturiko sistemen sariak ezin dira argitaratu iragarkien bitartez, eta ezin dira jarri aretotik kanpo ikusteko moduan.

2.– Joko aretoen merkataritzako izenak ezin ditu hartu beste joko batzuk edo beste joko azpisektore batzuk, ez eta horien gaineko erreferentziarik ere.

*6. artikulua.–* Konpartitutako elementudun lokalak.

1.– Joko areto batek eta jolas aretoren batek amankomunean badituzte tabikeak edo beste osagai arkitektoniko batzuk, ondoko betekizun hauek konplitu beharko dira:

a) Aretoetariko bakoitzak dituen sarrerak banakoak eta ondo bereizitakoak izango dira.

b) Lokal bi horien arteko separazioak honelaxe egin beharko dira: eremu guztietan eta kota guztietan, ikus-entzunezko isolamenduarekin.

c) Erabiltzaileentzako bi aretoon artean ezin daiteke eduki barne-sarrerarik edo -komunikaziorik. Aretoetako langileentzako sarreraren bat bakarrik baimenduko da. Aretoetako jarduerak dirauen bitartean, erabiltzaileentzako blokeatuta egon beharko du sarrera horrek. Ebakuazio-bideak diren sarrerak, ebakuazioak egiteko bakarrik erabili beharko dira.

2.– Dena den, lokaletariko bakoitzari dagozkion baldintzak betetzen direla lokal bakoitzeko eta aparte egiaztatu beharko da, eta espediente desberdinetan izapidetu beharko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehenengoa.–* Agindu honek indarra hartzen duenean, baimendutako joko aretoen titular direnek agindu honetako 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute, agindu honek indarra hartzen duenetik harako hi hilabeteko epearen barruan bete ere.

Goragoko idatz-zatian xedatutako betetzen ez bada, joko aretoa instalatzeko baimena indargabetu egingo da, edo erabiltzaileei ezin izango zaie eman ostalaritza-zerbitzu osagarria (bidezko denaren arabera, bat edo bestea) Joko Aretoen eta Jolas Aretoen Araudiko 15.4 artikuluan aurreikusten da aipatu ostalaritza-zerbitzu osagarria.

*Bigarrena.–* Aretoen titularren artean baimenak eraginkortasunez bana daitezen, joko aretoak instalatzeko eta funtzionatzeko baimenak tramitean dituzten interesatuek areto bakoitzeko, gehienez ere, 12 ustiapen-baimen erreserbatzeko eskubide izango dute, agindu honek indarra hartzen duenetik harako 15 eguneko epearen barruan eta beti ere ondoko betekizun hauek konplitzen badituzte:

*Artículo 5.–* Publicidad de premios y nombre comercial.

1.– Los premios de los sistemas interconectados no podrán publicitarse mediante anuncios ni ser visibles desde el exterior del local.

2.– El nombre comercial de los salones de juego no podrá incluir o hacer referencia a la denominación de otros juegos o subsectores de juego.

*Artículo 6.–* Locales con elementos compartidos.

1.– En el supuesto de que un salón de juego y otro recreativo se dispongan de modo que compartan tabiques u otros elementos arquitectónicos, deberán cumplirse los siguientes requisitos:

a) Las entradas a cada salón deberán ser independientes y estar claramente diferenciadas.

b) La separación entre ambos locales se realizará con cerramientos que proporcionen aislamiento visual y acústico entre las dependencias de ambos en todas las cotas.

c) No podrá existir comunicación ni acceso interior entre ambos salones para los usuarios. Unicamente se permitirá la existencia de algún acceso exclusivo para el personal de los salones. Dicho acceso deberá estar bloqueado para los usuarios durante la actividad de los salones, y la restricción de uso indicada con un anuncio claramente visible. Aquellos accesos que constituyan vías de evacuación, se destinará exclusivamente a dicho fin.

2.– En todo caso, el cumplimiento de las condiciones reglamentarias de los respectivos salones deberán acreditarse separadamente por cada local de juego, tramitándose en expedientes diferenciados.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.–* Los titulares de salones de juego autorizados a la entrada en vigor de la presente Orden deberán cumplir lo dispuesto en los artículos 2 y 3 de la misma en el plazo de tres meses desde su entrada en vigor.

El incumplimiento de lo dispuesto en el apartado anterior supondrá la revocación de la autorización de instalación del salón de juego o la imposibilidad de ofertar a los usuarios el servicio complementario de hostelería previsto en el artículo 15.4 del Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos , según proceda.

*Segunda.–* 1.– A efectos de promover una efectiva distribución de permisos entre los titulares de salones, los interesados que tengan en trámite autorizaciones de instalación y funcionamiento de salones de juego, durante el período de 15 días desde la entrada en vigor de la presente Orden tendrán derecho a la reserva de un máximo de 12 permisos de explotación por cada salón, siempre que cumplan los siguientes requisitos:

a) Joko Aretoen eta Jolas Aretoen indarreango Araudiaren 8. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriaz, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako aldeko irizpena izatea eskabideak. Eta, interesatuak, bestalde, aipatutako 4. idatz-zatiko a) eta d) letretan zehaztutako dokumentuak aurkeztu beharko ditu, beti ere txostena jakinarazten denetik harako 15 egun balioduneko epearen barruan.

b) Joko aretoaren enpresa titular izateko inskripzioa lortuta izatea interesatuak, edo inskripzioa lortzeko dokumentazioa aurkeztua izatea.

2.– Edozelan ere, agindu honek indarra hartzeen duenean, eskatutako ustiapen-baimen kopuru minimoa ez dutenek, kopuru hori osatu arte, ustiapen-baimenen erreserbarekiko lehentasuna izango dute.

3.– Agindu honek indarra hartzen duenetik harako zazpi eguneko epearen barruan, joko aretoen titularrek eskatutako ustiapen-baimenak honelaxe esleituko dira:

a) Eskabideek sarreran izan duten hurrenkeraren arabera, eta aipatu epea amaitu ondoren.

b) Eskabideak eskura dauden ustiapen-baimenak baino gehiago badira, eskatutako baimen kopuruarekiko proportzionalki egingo da esleipena.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko abenduaren 21a.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

a) Que la solicitud haya sido informada favorablemente por la Dirección de Juego y Espectáculos conforme dispone el apartado 4 del artículo 8 del vigente Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos, debiendo aportar el interesado los documentos de las letras a) y d) del citado apartado 4,en el plazo máximo de 15 días desde la notificación del informe.

b) Que el interesado haya obtenido la inscripción como empresa titular de salón de juego o que tenga aportada toda la documentación para la obtención de la misma.

2.– En todo caso, los titulares de salones de juego que a la entrada en vigor de la presente Orden no dispongan del número mínimo exigido de permisos de explotación, tendrán prioridad en la reserva de los permisos de explotación necesarios hasta completar dicho mínimo.

3.– Los permisos de explotación solicitados por los titulares de salones de juego durante el plazo de siete días desde la entrada en vigor de la presente Orden se adjudicarán del siguiente modo:

a) Por riguroso orden de entrada de las solicitudes, una vez agotado el plazo indicado.

b) En el supuesto de que las solicitudes excedan de los permisos de explotación disponibles, la adjudicación se realizará proporcionalmente al número de permisos solicitados.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de diciembre de 2000.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.